

Ahora sartu eta kriski-kraska jan zuen. Tripa beteta baserria goitik behera aztertzea erabaki zuen. Sukaldean eta kortan ez zuen ezer arrarorik ikusi. Eskaileretan gora joan zen logeletara. Armairu bat zabaldu eta mamua ikusi zuen.

Biak korrika hasi ziren oihuka, eta berriro ere ezkutatu ziren armairu batean. Dena ilun-ilun zegoen, ez zen ezer ere entzuten, arropa zikinaren hatsa zegoen. Ondoan dardarka zegoen norbait.

- Nor zara? - galdetu zuen txakurrak.
- Uuuuuuuuu! - erantzun zuen mamua.

Biak armairu berean zeudela konturatu ziren. Atea bultzatu zuten irteteko, baina trabatuta zegoen. Biek oihuka jarraitu zuten nekatu ziren arte.

Txakurrak irten nahi zuen, eta ideia bat bururatu zitzaion. Beldurrez galdetu zion mamuari:

- Zergatik ez zara sarrailatik irteten eta atea zabaltzen?

• • • • •

“Txakur beldurtia”

Oier Txasko Aiestuy

7 urte - Derio

2012 - A kategoria

1. saria

• • •